

## Diru Iturriak

Gure enpresaren sorrera egiterakoan argi izan dugu bakoitzak egingo duen ekarpena zein izango den. Enpresa bost lagunek osatua izango da eta bakoitzak hasierako ekarpen bat egingo du. Baserria Iraitzen familiako izanda, berak egingo duen ekarpena hau izango da. Besteok ekarpena dirutan jarriko dugu hasierako proiektuari zentzua emateko eta baserria atondu eta prestatzeko.

Bazkideen ekarpenetaz gain, hainbat eskolen interesa piztu egin dugu eta hauek hainbat dohaintza emango dizkigute proiektua aurrera eramateko. Oso garrantzitsua ikusten dugu eskolekin momentu oro harremanetan aritzea, horregatik hauen laguntzak guztiz eskertuak dira baserri eskolan.

Proiektu berritzailea izanda Bizkaiko Foru Aldundiari ere proiektua aurkezteko nahia dugu eta hauen subentzioa eskatu egin dugu, beraien erantzuna zein izango den itxaronda. Durangaldeko Mankomunitateari ere proiektua aurkeztu egin diogu eta hauen baietza jaso izan dugu baina ez dakigu haien subentzioa zenbatekoa izango den.

Enpresaren diru-iturri nagusiei dagokienez 3 atal ezberdinetan banatuko ditugu aktiboen salmenta. Diru guztia kontu berdinerara joanda ere desberdinketa egitea garrantzitsua izango da urte amaieran egin beharreko analisiarekin ondorio errentagarriak ataratzeko.

- ZERBITZUAK: eskainiko ditugun zerbitzu ezberdinetako irabaziak izango ditugu. Hiru zerbitzu nagusi izango ditugu eskaintzeko eta hauekin diru-sarrera nagusiak jasoko ditugu.

Zerbitzuak	Prezioa	
Egunpasa	Heldua 25€ Haurra 10€	Bazkari menua: 10€
Asteburua	Heldua 95€ - 125€ Haurra 70€ - 110€	*familia osorako bono bereziak egiten ditugu
Ikastaroak	Ikastaroaren arabera izango da prezioa.	

- ESKOLEN TXANGOAK: Hainbat ikasleetatik dohaintzak jasotzeaz gain hauen txangoak antolatzea ere gure zerbitzuetako bat izango da. Bertako metodologia eta eskolakoak bat egiteak haurren garapena aberastu egingo du eta honela familien interesa piztea ere lortuko dugula argi dugu. Eskolekin prezio bereziak adosteko aukera izatea garrantzitsua dela uste dugu,

bezeroekin harremana gertukoa izan dadin. Estimazio bat kalkulatu izan dugu irteera bakoitzeko.

	PREZIOA
Egunpasa	10 hurreko/ 80€
Gauak	10 hurreko/ 170€

- SUBENTZIOAK: Gure proiektu hau martxan jartzeko Foru Aldundiak subentzioa eman eta gero urte osoan zehar ere hainbat laguntza emango dizkigu ere ikasketa eta heziketa prozesuak aurrera eramateko.